

1951-IV-29

Bilbon, mila bederatzireun ta berrogeita amaikagarren urteko Jorrailaren ogeita-bederatzian, Euskaltzaindiaren etxean, Azkue jauna maipuru dala ta Etxegarai, Etxaide, Irigarai, Krutwig ta Oleaga Euskaltzainak eta Arrutza, Garro ta Villasante urgazleak bertan dirala, egiten da il oneri dagokon Euskaltzaindiaren batzarra.

Asantza ta Lekuonak ezin etorri dirala iragarri dabe.

Araudizko otoitza egin eta gero lenaurreko batzar-agiria irakurri da ta ao-batez onetsia izan da.

Ildako Urkijo Euskaltzainaren alargunak, Euskaltzaindiaren izenean bidaldu jakon tamal-agurra dala-ta, eskerrak emoten dauz.

Bilboko Endore jaunari, Gorostiaga Euskaltzainaren sarrera ospatzeko Udalbatzargela eskini ebalako, esker biotzetikoak emotea erabagi-da.

Irigarai ta Krutwig jaunen asmoz, gaia ondo-ondo ta zeatz-zeatz azterturik eta eztabaida luze ta bizien ekinik, auxe ebatzi da: 1) Euskaltzaindiak, idazkerea dala-ta, orainarte artuta daukazan erabagiak oraingoz era berean bete daitezala. Baina irar-koletan izki-eredu berezirik eztagoanean D, L, R, ta T gangardunen ordez DD, LL, RR ta TT izki bikoitzak erabili leitezazala. 2) atzerrietako gizata erri izenetan eta jakituri-itzetan jatorri idazkerea erabili daitela.

Eta beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Resurreccion M.^a Azkue

Zadorlaria
Nazario Oleaga